

DONEJAKUE BIDEA EUSKADIN
EL CAMINO DE SANTIAGO EN EUSKADI



COMENDIOAK
RECOMENDACIONES

Planifikatu hurrengo eguneko etapa: Erromesen aterpe asko udan bakarrik irekitzen dituzte. Komeni da Bidea bakarrik ez egitea. Ez ahaztu dokumentazioa, kredentziala eta dirua -edo kreditu-bartela-, eta kontu handia izan baliozko objektuekin. Eraman etapa bakoitzerako janari eta edari nahikoa eta larrialdietako botika-kutxa. Eraman oinetako eta arropa egokiak, eguraldiaren iragarpena kontuan hartuta. Komeni da mugikorraren bateria ongi beteta eramatea. Zure segurtasunerako, jarraitu seinale ofiziale. Trazadura diferente bat adierazten duten gezi horiirik aurkituz gero, ez jarraitu halakoei. Errespetatu ingurunea eta gainerako erromesak.



Hernanitik irtendakoan aukeratu egin behar dugu: edo Oriaren aldaera, hasiera samurra duena, edo Saiatzeko aldatibia, ederragoa bada ere askoz ere gogorragoa dena. Bigarren aldaera hori mendietan gora doa, Oriaren bailarako mendebaldeko mugan barrena. Ibilbide bikaina da, batez ere ikuspegi bikainak eskaintzen dizkigulako: batetik, Kantauriko kostaldeko panoramika, urrunean, eta, bestetik, lurralde historikoaren mugari nagusiak, hala nola Hernio mendia edo Saiatzeko irudiak. Hernanitik, Lasarte-Oriatik eta beste herri batzuetatik igaro ondoren, urbanizatutako ibaiertzetatik urrun ibiliko gara kilometro batzuetan, pinu- eta haritz-basoetan murgilduta; baserri bakan batzuk baino ez ditugu aurkituko bertan.

Al abandonar Hernani, debemos elegir entre la variante del Oria, con un arranque de suave perfil, o la alternativa de Saiatz, más hermosa pero, también, mucho más exigente. Ésta segunda variante trepa por las montañas que cierran el valle del Oria por occidente. Lo grandioso de este trayecto son las panorámicas que regala tanto de la costa Cantábrica -en la lejanía-, como de los principales hitos naturales del territorio histórico, como el monte Hernio o las estampas de Saiatz. Tras el paréntesis de los primeros pueblos como Hernani o Lasarte-Oria, se abandonarán, durante varios kilómetros, las riberas urbanizadas para sumergirse en bosques de pino y roble apenas habitados por caseríos solitarios.




Bidezatia / Tramo
HERNANI >
ZARATEKO BENTA/
BENTA DE ZARATE

km 0 -----HERNANI. Parte zaharretik irtengo gara udaletxeko arkuaren azpitik, eta eskuinaldera egingo dugu, Santa Barbara auzoaren aldera. Lasarterako bidean, sagardotegi barreiatu batzuk aurkituko ditugu, eta, horrez gain, Santa Barbararen ermitarako saiheSBidea eta karlisten gotorleku zahar bat. km 4,7 ----LASARTE-ORIA. N-1 errepidearen azpitik pasatu eta Lasarte-Oriako herrira iritsiko gara. San Pedoren eliza eta Birgitarren komentua nabarmentzen dira bertan. Urmaela eta ahateak dauzkan parkea zeharkatuko dugu, eta, jarraian, Oria ibaia, hipodromoa ezker aldean utzita; pasealeku batek Zubietako gunetikira eramango gaitu. km 6,1 ----ZUBIETA. Herri txiki hori atzean utzi eta auzo-bide batean barrena egingo dugu aurrera, sagardotegi baten eta zenbait baserriren ondotik. Lertxundi baserrira iritsi baino lehenago ezker aldeko bidezidor piko hartuko dugu. Berehala, Zubietako erraustegia eraikitzen ari diren orubearen ondotik igaroko gara. Gora eta gora jarraituko dugu megalitoek zedarritzatutako baso-paisaia barrena, eta Etumetako atsedenelekura iritsiko gara; handik, behera egingo dugu, Zarateko bentara.

km 0 -----HERNANI. Salimos del casco antiguo por debajo del arco del ayuntamiento y giramos a la derecha, en dirección al barrio de Santa Bárbara. En el camino a Lasarte además de algunas sidrerías diseminadas encontramos el desvío a la ermita de Santa Barbara y un antiguo fuerte carlista. km 4,7 ----LASARTE-ORIA. Pasando bajo la N-1, alcanzamos la villa de Lasarte-Oria donde destacan la iglesia de San Pedro y el convento de las hermanas Brigidas. Tras atravesar un parque con estanque y patos, cruzamos el Oria junto al hipódromo, que queda a nuestra izquierda, y un paseo nos conduce al pequeño núcleo de Zubieta. km 6,1 ----ZUBIETA. Tras dejar atrás esta pequeña población, seguimos por un camino vecinal que pasa junto a una sidrería y varios caseríos. Antes del caserío Lertxundi, tomaremos un sendero a la izquierda con fuerte subida que pasa al poco junto al solar donde se está construyendo la incineradora de Zubieta. Continuaremos ganando altura por un paisaje eminentemente forestal jalonado por algunos megalitos hasta alcanzar el área recreativa de Etumeta para después descender hasta la venta de Zarate.

Donejakue Bidea Camino de Santiago
Barrualdeko Bidea SAIAZTEKO BIDEA
2B
HERNANI BIDANIA
Km. 28,8
1250m
8h. 15'
EUSKADI BASQUE COUNTRY





EZ GERATU EZAGUTU GABE! ¡NO TE LO PIERDAS!



Barnealdeko bide batean barrena goazen arren, ez galdu Gipuzkoako kostaldeko bista ederrak, Etumetatik Zarateko bentarainoko jaitsieran ikusgai izango dituzunak.

Aunque discurrimos por un camino de interior, no te pierdas las vistas de la costa gipuzkoana que se te ofrecerán en la bajada a la venta de Zarate desde Etumeta.



Andatzako estazio megalitikoak Gipuzkoako garrantzitsuenetako bat da. Izen bereko mendilerroan barreiatutako 11 megalitok (10 trikuharri eta zista bat) osatzen dute. Ehorzketako hilobi-eraikuntzetako batzuk aurkituko ditugu bidearen ondoan. Neolito-Brontze Arokoak (K. a. IV-II. milurtekoak) izan daitezke gutxi gorabehera, eta historiaurretik mendi horietan barrena ibili direnen erakusgarri dira.

La estación megalítica de Andatza es una de las más importantes de Gipuzkoa. Está compuesta por total de 11 megalitos (10 dólmenes y una cista) dispersos en el macizo del mismo nombre. Junto al camino encontraremos algunas de estas construcciones funerarias de inhumación que pueden datar del Neolítico-Bronce (IV-II milenio a.C.) y que nos dan fe del paso por estas montañas desde tiempos prehistóricos.



Hernio mendiaren azpian Iturriotzeko benta aurkituko dugu. Tradizioaren arabera, San Ignazio Loiolakoak gau bat eman zuen bertan, Paristik Azpeitiko jaiotetxera bakarrik egin zuen bidaian.

Al pie del monte Hernio encontramos la venta de Iturriotz donde según la tradición pasó una noche San Ignacio de Loyola, en el viaje que realizó él solo desde París a su casa natal en Azpeitia.

Bidezatia / Tramo ZARATEKO BENTA/ BENTA DE ZARATE > BIDANIA

km 14,9- **ZARATEKO BENTA.** Zarateaitzeko gailurra inguratuz, Saskarate baserrira jaitsiko gara, egun agroturismo gisa egokituta dagoena. Mulloil eta Bulanomendi muinoak ezkerretatik inguratuz, Sarobezelaietako mendi-leporaino iritsiko gara. Zementuzko bide batean barrena egingo dugu aurrera Irumuño inguratuz (hiru muinok osatutako multzoa da), eta, behitegi baten aldamenetik igaro ondoren, Andazarrateko mendi-lepora iritsiko gara, GI-2631 errepedeak zeharkatzen duena.

km 19,4- **ANDAZARRATE.** Iturriotzeko bentarako bidea hartuko dugu, lehenik errepidetik, eta, geroago, ezkerretatik bidetik. Bentaren ondoan, San Juanen ermita aurkituko dugu, eta, bertan, Iturriotz, tokia izena eman dion iturria.

km 21,3- **ITURRIOTZ.** Ermitaren aldamenetik bide bat abiatzen da Gazume mendiaren hegaletan gora, Zelatungo mendi-lepoaren aldera. Bordetako batean taberna bat irekita egoten da, udan eta asteburuetan.

km 24- **ZELATUN.** Harizko bidean barrena jarraitzen du bideak, Hernioren gailurreraino gora egiten duen bidezidorraren azpitik. Gipuzkoako probintziako begiratoi nagusietako bat da Hernio. Hego-hegalean aurrera egiten du bideak Iturburuko mendi-leporaino, bailararen behealdera daraman bide zahar batean barrena jarraitzeko.

km 14,9- **VENTA DE ZARATE.** Se bordea la cumbre de Zarateaitz para descender al caserío Saskarate, acondicionado como agroturismo. Flanqueando las lomas de Mulloil y Bulanomendi, por la izquierda, llegamos al collado de Sarobezelaieta. Un camino de cemento nos permite continuar rodeando el conjunto de tres lomas, conocido como Irumuño y tras pasar una vaquería, alcanzamos el collado de Andazarrate, surcado por la GI-2631.

km 19,4- **ANDAZARRATE.** Nos encaminamos hacia la venta de Iturriotz, primero por asfalto y después por un camino que sale a la izquierda. Al alcanzar la venta, junto a ella encontramos la ermita de San Juan, donde se encuentra la fuente que ha dado nombre al lugar, Iturriotz (agua fresca).

km 21,3- **ITURRIOTZ.** Junto a la ermita parte el camino que acomete la ascensión por las laderas del monte Gazume, al collado de Zelatun. En una de las bordas, una taberna abre en verano y fines de semana.

km 24- **ZELATUN.** La ruta continúa por un camino empedrado, bajo el sendero que asciende a la cumbre de Hernio, uno de los principales miradores de la provincia de Gipuzkoa. La senda discurre por la ladera sur hacia el collado de Iturburu, para seguir por un antiguo camino descendiendo al fondo del valle.

www.euskaditurismo.eus



KONTUAN HARTU BEHARREKOAK A TENER EN CUENTA

• Bide luzea eta zorrotza da, behin Zubietatik irten ondoren oso zerbitzu gutxi eskainiko dizkiguna. Hortaz, hobe dugu eguna emateko behar dugun ura eta jana prestatzea, eta etapa menditsu honi ongi heltzeko bastoi eta bota egokiez hornitzea.

• *Se trata de una travesía larga y exigente en la que apenas encontraremos servicios una vez que salgamos de Zubieta. Conviene aprovisionarse de agua y la comida necesaria para pasar la jornada y pertrecharse con bastones y buenas botas para encarar esta montañosa etapa.*

• Abiatu baino lehen ostatua erreserbatzea komeni da. Bidania-Goiatzen ostatu hartzeko aukerak urriak direnez, Lurraldebuseko autobus-lineak Errezilera edo Tolosara eramán gaitzake, hartara aukera gehiago edukitzeko.

• *Es conveniente reservar el alojamiento antes de emprender la marcha. Ante la escasez de hospedaje en Bidania-Goiatz, la línea de autobuses de Lurraldebus nos permite comunicar fácilmente con Errezil o Tolosa ampliando así las opciones.*

• Saiatzeko bi etapak hirutan berrantolatzea guztiz bideragarria da, etapa gogorak, luzeak eta aldapatsuak direla aintzat hartuta.

• *Es perfectamente viable reorganizar en tres, las dos etapas de Saiatz teniendo en cuenta su dureza, longitud y desnivel.*



TELEFONO INTERESGARRIAK TELÉFONOS DE INTERÉS

Donejakue bideen lagunen elkarteak (Gipuzkoa)
Asociación de Amigos del Camino de Santiago (Gipuzkoa) 943 42 72 81

Hernaniko Turismo Informazio Puntua
Punto de Información Turística de Hernani 943 33 70 28

Tolosako Turismo Bulegoa
Oficina de Turismo de Tolosa 943 69 74 13

Larrialdia
Emergencias

